

# GORPUTZ-ADIERAZPENA II

**TANIT DUÑABEITIA GOIKOETXEA**

**Marraskilaria: BELATZ**



UNITATE DIDAKTIKOA					
Izenburua		GORPUTZ-ADIERAZPENA			
Maila	LMH 5	Saio-kopurua	10		
Lantzen diren ekintzen dominioa (morez)					
1	2	3	4	5	6
Bakarkako ekintzak	Bat baten aurkako ekintzak	Elkarlaneko ekintzak	Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak	Ziurgabetasun-ingurune-ko ekintzak	Adierazpen- eta arte-ekintzak
Justifikazioa					
<p>Unitate didaktiko honetan <i>adierazpen- eta arte-ekintzak</i> biltzen dituen dominioa lantzen da, —seigarrena sailkapenean—. Dominio horren helburua da ikasleek gorputza berez (naturaltasunez) edota berariaz erabiltzea, bai komunikatzeko, bai eta emozioak, sentimenduak eta mezuak adierazteko ere. Gainera, unitate honi dagokionez, helburua da beste gela batzuetako ikasleentzat egingo duten emanaldirako adierazpen- eta arte-ekintza motor batzuk ikastea: antzezpen eta dantza batzuk.</p> <p>Dominio hori lantzeko hainbat adierazpen-erregistro (gorputza, keinu-hizkuntza, ahozko komunikazioa, dantza...) eta adierazpen-baliabide (erritmoak, desplazamenduak, espazioak, rolak, irudiak, objektuak...) dituzten ekintza motorrak egingo dira.</p> <p>Gorputz-adierazpena oinarri duten ekintzak eta egoerak proposatuko zaizkio ikasleari. Horrela, gorputza erabilia, mugimenduak imitatuz, eta esperimendatuz, pixkanaka-pixkanaka sormena garatu eta mugimendu berriak sortuko ditu ikasleak. Imitatzaile izatetik sortzaile izatera igaroko da. Horretarako, honako rol hauek esperimendatu beharko ditu: sortzailearena, antzezlearena, epailearena edota ikusle kritikoarena. Horrez gain, unitate honetan, errepikapena eta sormena erabiliz, euskal dantzak, munduko dantzak eta gorputzaz baliatuz egindako hainbat erritmo (gorputz-perkusioa) ikasi eta sortuko dituzte.</p> <p>Lantzen diren jarduerak adierazpen- eta arte-ekintzetarako gaitasuna garatzen laguntzen dute. Hau da, hizkuntza- eta keinu bidezko komunikaziorako gaitasuna garatzen dute, batez ere besteekin komunikatzeko, emozioak eta gogo-aldarteak adierazteko eta nor bere buruarekin gustura sentitzeko gaitasuna. Halaber, oso ekintza aproposak dira ikasle guztien parte-hartzea bultzatzeko, adina eta sexua kontuan hartu gabe. Horrez gain, ekintza horien bidez, ikasleari denbora libre betetzeko eskaintza zabaltzen diogu.</p> <p>Gorputz-adierazpenak ikasleei emozioak eta sentimenduak adierazteko estrategiak eskaintzen dizkie, besteekin komunikazioa errazteko, eta, aldi berean, barneko korapiloak askatzeko. Ikaskideen aurrean egin beharreko antzezpen eta dantzei esker, lotsa gaindituko dute eta jendaurrean aritzeko beldurra uxatzea lortuko dute. Bestalde, etorkizunean dantza eta kultura artistikoa errazago ulertu, balioetsi eta kritikatu duten ikasleak izango dira.</p>					

Helburuak eta ebaluazioa			
Helburu didaktikoak	Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1. Musika eta erritmo batzuk jarraituz, dantzak (pausoak eta koreografiak) eta gorputz-perkusioa erabilia egiturak asmatzea, inprobisatzea edo errepikatzea, adierazpen eta komunikazio era berriak erabiltzeko.	7. Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.	Euskal dantzen eta munduko dantzen oinarrizko pausoak eta jauziak sinkronizatzen ditu. Dantzak asmatzean irudimena eta sormena badu. Inprobisazio-jardueretan, bere mugimendua eta gorputz-adierazpena musika-estilo desberdinetara egokitzen ditu. Gorputz atalak eta hainbat objektu erabilia, erritmo batzuk esperimintatzen, sortzen eta errepikatzen ditu.	Hasierako ebaluazio-orriak Lorpenen jarraipen-orria
2. Adierazpen-asmoekin edo asmo artistikoekin gorputz-adierazpenaren baliabideak eta mugimendua erabiltzea, sentsazioak, emozioak eta egoerak adierazteko eta interpretatzeko.	7. Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.	Gorputz-adierazpeneko oinarrizko teknikak aplikatuta, hainbat egoera antzezten ditu. Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu, sentsazioak eta emozioak komunikatzeko. Antzezpeneak (esketxak eta bestelako antzezpene laburrak) sortzen eta antzezten ditu. Besteen antzezpeneak ulertzen ditu. Gorputzaren adierazpen-baliabideak eta mugimendua sormen handiz erabiltzen ditu.	Autoebaluazio-orria Koebaluazio-orriak

<p>3. Jarduera fisiko guztiak egitean nork bere buruarekin eta besteekin jarrera arduratsua izateko prest agertzea.</p>	<p>4. Jarrera aktiboak izatea, egoera fisikoa oro har hobetzeko, eta jarduerak egitean kontuan hartzea norberaren gorputzaren eta mugimendu-gaitasunaren aukerak eta mugak.</p> <p>6. Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatzea jolasen eta kirol-jardueren oinarrizko balio diren aldetik, eta haiekin bat jotzea.</p>	<p>Jardueretan, lotsa gainditu eta naturaltasunez hartzen du parte.</p> <p>Antzezteko egoerak proposatzeko eta sortzeko inizatiba badu.</p> <p>Jardueretan, gustura hartzen du parte eta jarrera ona du.</p> <p>Rol desberdinak onartzen ditu.</p> <p>Besteen jarduna errespetatzen du.</p>	
<p>4. Jarduera fisikoa egitean ekipamenduari eta higie-ne-ohiturei erreparatzea, bizi-ohitura osasungarriak finkatzen eta autonomia izaten laguntzeko.</p>	<p>8. Jokabide aktiboak izatea, ariketa fisikoak osasunerako duen balioa aintzat hartuta, gorputza eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak zaintzeko interesa izatea, eta drogen kontsumoa eta portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideak saihestea.</p>	<p>Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzen ditu.</p> <p>Jarduera fisikoa egitean, osasuna eta higie-ne-a zaintzen ditu.</p> <p>Hausnarketa-tartean, taldean era positiboan eragiten du eta kritika eraikitzailea egiten du.</p>	

**Edukiak**

- Gorputza eta bere mugimendua: gorputz-adierazpena
- Dantzak eta koreografiak: euskal dantzen munduko dantzen eta dantza libreen sormena eta errepikapena
- Gorputz-adierazpena: keinuen eta mugimenduen bidezko emozioen adierazpena
- Gorputz-perkusioa: erritmo-sekuentzien sormena eta errepikapena
- Emozioen azterketa: imitazio- edota identifikazio-jolasak eta sormen-jolasak (sentimenduak, keinuak...)
- Antzezpena: esketxak eta antzezpen laburrak
- Denboraren pertzepzioa: mugimenduen abiadura eta hainbat erritmo
- Espazioaren pertzepzioa: antolaketa (antzezlekua, ikusleria, materiala...)
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia hartzea eta norberaren erregulazioa
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa
- Errespetua: norberarekiko, lagunekiko, irakaslearekiko eta materialarekiko
- Osasun- eta higiene-ohiturak

### Irizpide metodologikoak

Unitate didaktikoa honetan *adierazpen- eta arte-ekintzen* dominioaren ikaskuntzak lantzeko, ikasleek gorputz-adierazpenaren bitartez gorputza berez edo berariaz erabiliko dute. Dominioaren ardatz metodologikoak bi zutabe nagusi izango ditu: komunikazioa eta adierazpena.

Unitateak dituen helburuak lortzeko, jarduerak era progresiboan daude antolatuta saioz saio. Ikaslea imitatzaile izatetik sortzaile izatera bultzatuko duten jarduerak eta jolasak proposatuko dira. Nork bere burua askatzeko eta gorputza sentitzeko aukera emango diete ikasleei, eta haien premien arabera egokituko ditu irakasleak. Saiok gimnasioan egingo dira, eta jendaurreko emanaldiak antzezlekuan edo, horren faltan, antzezleku bihur daitekeen edozein espaziotan.

Unitatean bi jendaurreko emanaldi egingo dira. Bata ikasleek sortutako esketxen erakustaldia izango da, eta, bestea dantza-ikuskizuna (Euskal Herriko eta munduko dantzak eta asmatutako koreografiak). Bestelako jarduerak ere egingo dira, eta, hasierakoak errazak, irekiak, eta anitzak izango dira. Sorkuntza-prozesuetan, puntualki sortzen doazena besteei erakustek garrantzi handia izango du. Ikasleek hiru rol ezberdin hartuko dituzte: sortzailearena, antzezlearena eta ikusle kritikoarena.

Materialak bere garrantzia du unitate honetan. Jolasetan erabiliko diren materialaz gain, landu beharreko dantza eta gorputz-perkusio ereduak bideoetan izango dituztelako, eta, beraz, IKTen erabilera bultzatuko da., ikuskizunerako jantzi eta *attrezzo* osagarriak erabiliko dira. Behar den material hori ikastetxekoa edota ikasleek etxetik ekarritakoa izan daiteke.

Ikasleak batzuetan banaka egingo dute lan, baina beste batzuetan taldeka arituko direnez (talde txikitik zein handitan), taldekatzeak orekatuak eta heterogeneoak izatea bermatuko da.

### Kalifikazio-adierazleak

#### Espezifikoak: % 55

Jokabide motorraren garapena

#### Orokorrak: % 45

Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa

Errespetua (norberarekiko, lagunekiko, irakaslearekiko eta materialarekiko)

Arreta

<b>Diziplina barruko oinarrizko konpetentziak</b>	
<b>1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pentsamenduak, sentimenduak eta gertaerak adierazteko gorputz-adierazpena erabiltzea.</li> <li>• Komunikatzeko ahozko hizkuntza erabiltzea.</li> <li>• Gorputz-adierazpenarekin lotutako lexikoa ezagutzea eta erabiltzea.</li> <li>• Jardueren praktikan aginduak ematea zein jasotakoak ulertzea eta interpretatzea.</li> <li>• Jendartean hitz egiteko oinarrizko arauak ezagutzea eta erabiltzea.</li> <li>• Nork bere ideiak era egokian azaltzea eta besteenak entzutea.</li> <li>• Nork bere erantzun motorrak, bizipenak eta emozioak taldean ahoz azaltzea.</li> <li>• Ahozko komunikazioan hizkuntza ez-sexista eta ez-baztertzaila erabiltzea.</li> </ul>
<b>2. Matematikarako konpetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Denboraren, espazioaren eta erritmoaren kontzeptuak aplikatzea.</li> </ul>
<b>3. Zientziarako konpetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gorputzaren adierazpen-baliabideak eta mugimenduak ezagutzea eta errespetatzea.</li> <li>• Higienearekiko eta osasunarekiko jarrera arduratsua izatea.</li> <li>• Aisialdia betetzeko jardura fisikoa balioestea.</li> </ul>
<b>4. Teknologiarako konpetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikus-entzunezkoekin lan egitean teknologia digitala era egokian erabiltzea.</li> </ul>
<b>5. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sentimenduak eta emozioak adierazteko modu positiboak ezagutzea, balioestea eta erabiltzea.</li> <li>• Taldean rol bakoitzari dagozkion funtzioak eta betebeharrak adostea.</li> <li>• Inhibizioa eta lotsa gainditzeko estrategiak erabiltzea.</li> <li>• Jolasen eta jardueren arauak errespetatzea eta betetzea.</li> <li>• Gatazkak bideratzeko eta konpontzeko, elkarrizketa erabiltzea.</li> <li>• Jarrera ez-baztertzaila izatea, aniztasuna balioestea eta lagunekiko errespetua izatea inor baztertu gabe, gaitasun, genero, maila sozio-ekonomiko, jatorri edo beste edozein arrazoi dela.</li> <li>• Nork bere ekintzen ondorioez hausnartzea.</li> <li>• Elkarlana ulertzea eta era positiboan balioestea.</li> <li>• Emozioak azalratzea eta, emaitzaren ginetik, autoerregulatzea.</li> <li>• Besteei laguntza emateko prest egotea.</li> <li>• Frustrazio-egoerei aurre egiteko, estrategiak ezagutzea, balioestea eta erabiltzea.</li> <li>• Autonomia izatea.</li> <li>• Zailtasunei aurre egiteko eta arduraz jokatzeko, jarrera positiboa izatea.</li> </ul>

**6. Arterako konpetentzia**

- Euskal kulturaren eta beste kulturetan gorputzaren adierazpen-baliabideak ezagutzea.
- Dantza eta gorputz-adierazpena kulturatzat hartzea.
- Gorputzaren bidez ideiak edo sentimenduak adieraztea.
- Jarrera sortzailea izatea.

**7. Konpetentzia motorra**



- Egoera motorretan gorputzaren mugimendu-aukerez baliatzea.
- Emozioak, sentimenduak eta iritziak adierazteko gorputza erabiltzea.
- Ekintza-egoeretara etengabe egokitzea.
- Gorputz-adierazpena alderdi ludikotik lantzea.
- Sortzaile- eta antzezle-rola eta ikusle kritikoaren rola onartzea.







<b>Oinarrizko zehar-kompetentziak</b>	
<b>1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzez aginduak eta gomendioak ematean, estrategiak adostean eta bizipenak, emozioak eta pentsamenduak adieraztean, era autonomo, sortzaile eta eraginkorrean aritzea.</li> <li>• Gorputzaren adierazpen-baliabideak eta mugimendua ulertzea eta errespetatzea, eta gorputzarekin adierazteko autonomia izatea.</li> </ul>
<b>2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gorputz-adierazpena erabiltzean norberaren ezaugarriak, trebetasunak eta mugak ezagutzea, eta gorputzaren adierazpen-baliabideak ulertzea eta barneratzea (pentsamendu analitikoa).</li> <li>• Egindako praktikan, norberaren erantzun motorrak eta jarrerak aztertzea, ebaluatzea eta norbera erregulatzea (pentsamendu kritikoa).</li> <li>• Gorputzaren bidez adierazteko eta komunikatzeko estrategiak sortzea eta aukeratzea (pentsamendu sortzailea).</li> <li>• Ikasitakoa beste egoera batzuetan erabiltzen jakitea.</li> </ul>
<b>3. Elkarbizitzarako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saioaren bukaeran norberaren bizipenak, pentsamenduak eta sentimenduak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteenak entzutea eta kontuan hartzea.</li> <li>• Taldean lan egiten ikastea: estrategiak adostea, helburu berarekin elkarlanean aritzea, eta rol bakoitzari dagokion funtzio eta betebeharrak onartzea.</li> <li>• Jolas-arauak errespetatzea eta betetzea.</li> <li>• Gatazka-egoerak elkarriketaren bidez bideratzea eta konpontzea.</li> </ul>
<b>4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintza-arauak eta -printzipioak sortzea eta ikaskuntzan aurrera egiteko proposamenak egitea.</li> <li>• Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.</li> <li>• Egindako jarduerak ebaluatzea eta saioaren bukaeran hobetzeko proposamenak egitea.</li> <li>• Norberaren lana hobetzeko eta besteei laguntzeko prest egotea.</li> <li>• Erronka berrien aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea.</li> </ul>
<b>5. Izaten ikasteko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberaren pentsamendua eta ikasteko estilo kognitiboa erregulatzea.</li> <li>• Norberaren jokabide morala erregulatzea.</li> <li>• Norberaren motibazioa eta nahia erregulatzea.</li> <li>• Norberaren garapenean, ariketa fisikoaren eta ohitura osasungarrien garrantziaz jabetzea. Gorputzaren irudia erregulatzea.</li> <li>• Norberaren emozioak ezagutzea eta kudeatzea.</li> <li>• Norberaren kontzeptu eta estimu ona edukitzea.</li> <li>• Nork bere erabakiak gero eta autonomia handiagoz hartzea eta erabakitakoen gaineko erantzukizuna onartzea.</li> </ul>



<b>Gorputz Hezkuntza. Etapako helburuak (gorriz)</b>	
1	Hautemate-gaitasunak eta gaitasun motorrak aztertzea, nork bere buruarengan konfiantza izatea eta norberaren ongizatea sustatuz, osasunerako onuragarria izan dadin.
2	Trebetasun eta gaitasun fisikoak garatzea, haurren eboluzio-prozesuarekin bat, jolasa erabiliz, oinarritzko baliabide den aldetik.
3	Problema motorrak ebazteko printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta arte- eta adierazpen-jarduerak praktikatzean eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea, ahalegina erregulatuz, dosifikatuz eta balioetsiz, eta norberaren aukeren eta zereginaren nolakotasunaren arabera maila jakin batera iristea, nork bere buruari ezartzen dion eskakizunean.
4	Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatzuz.
5	Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.
6	Jarduera fisikoa neurritz eta maiz egitearen garrantzia balioestea, norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizunezko jarrera erakusteko, eta ariketa fisikoak, higieenak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean dituzten eraginak aintzat hartzea.
7	Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz, eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz.




<b>Saioen sekuentzia</b>	
<b>1. saioa</b>	Unitate didaktikoaren aurkezpena. "Oinez". Antzezpen laburrak egitea. "Zer da esketx bat?". Esketxa taldean asmatzea 1. Hausnartzeko tartea.
<b>2. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. "Kamera geldoa". "Kontuz!". Esketxa taldean asmatzea 2. Hausnartzeko tartea.
<b>3. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Zertan ari diren asmatzea. Esketxa taldean asmatzea 3. Hausnartzeko tartea.
<b>4. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Mimika-jolasa. Esketxa taldean asmatzea 4. Hausnartzeko tartea
<b>5. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Gorputz-perkusioa zer den ulertzea. "Kaixo!". Munduko dantzak 1 (Cumberland Reel eta Anne Marie Reel). Hausnartzeko tartea.
<b>6. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. "1,2,3". Gorputz-perkusioa: erritmo-patroi konplexua sortzea. Munduko dantzak 2 (Cumberland Reel eta Anne Marie Reel). Hausnartzeko tartea.
<b>7. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Kanon bat sortzea. Gorputz-perkusioaz baliatuz musika-patroia asmatzea. Euskal dantzak 1 (Oriako sorgin-dantza). Hausnartzeko tartea.
<b>8. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Euskal dantzak 2 (Oriako sorgin-dantza eta Zazpi jauzi). Koreografia sortzea 1. Hausnartzeko tartea.
<b>9. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Euskal dantzak 3 (Zazpi jauzi eta Oriako sorgin-dantza). Koreografia bat sortzea 2. Hausnartzeko tartea.
<b>10. saioa</b>	Saioaren aurkezpena. Dantza-ikuskizunerako prestatzea. Dantza-ikuskizuna. Hausnartzeko tartea.

1. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Norberaren aurrezagutza eta gorputz-adierazpena nolakoak diren identifikatzea.</p> <p>Gorputz-adierazpenaren baliabideak eta mugimenduak erabiltzea egoerak adierazteko.</p> <p>Esketx bat zer den ikastea, talde txikian lan egitea eta erabakiak adostea.</p>		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Proiektorea, ordenagailu eramangarria, orri zuriak, arkatzak, ikaslearen hasierako ebaluazioaren orria (1. eranskina) eta autoebaluazio-orria (3. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Unitate didaktikoaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira, eta irakasleak unitate didaktikoaren aurkezpena egingo du.</p> <p>Ikasleek ikaslearen hasierako ebaluazioaren orria banaka beteko dute, eta bertan adieraziko dute gaiaren inguruan zer dakiten, antzerkia eta dantza gustuko dituzten, eta aurretik inoiz dantzarik edo antzerkirik egin duten. Ondoren, irakasleak orri guztiak jasoko ditu, eta bildutako informazioarekin taldearen ezagutza-eta esperientzia-maila identifikatuko ditu. Jarraian, ikasleek haien bizipenen inguruan hitz egingo dute ikaskideekin, eta iritziak elkar trukatzeko dituzte.</p> <p>Bukatzeko, irakasleak unitatearen helburua zein den zehaztuko du, eta horretarako egingo diren jarduerak azalduko.</p>			
<b>2. jarduera</b>	“Oinez”	<b>Denbora</b>	5 min
<p>Banaka. Ikasleak gimnasioan zehar sakabanatuko dira. Irakasleak hainbat zoru-egoera deskribatuko ditu banan-banan, eta ikasleek zoru horren gainean nola mugitu behar diren antzeztuko dute.</p> <p>Hona hemen hainbat zoru-egoeren adibideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zoru irristakorra</li> <li>- Lokatzez betetako zorua</li> <li>- Txikilez betetako zorua</li> <li>- Brasaz betetako zorua</li> <li>- Putzuak</li> <li>- Itsasoak</li> </ul>			



<p>- Errekak</p> <p>Zoru-egoeraren arabera, ikasleek ibiltzeko modu bat edo beste antzetzuko dute, gorputz mugimenduak, keinuak eta soinuak erabiliz.</p>			
<b>3. jarduera</b>	Antzezpen laburrak egitea	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Seinaka. Irakasleak talde bakoitzari zer antzetzuko behar duen azalduko dio, eta talde bakoitzak, txandaka, dagokiona antzetzuko du gainerako taldeen aurrean.</p> <p>Hona hemen antzetzuko daitezkeen zenbait ekintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Rock kontzertua. Ikasleak dantzan eta kantuan ari dira, eta musikariek ikuskizuna eskaintzen oholtza gainean. Pertsonaiak: musikariak eta ikusleak.</li> <li>- Artzain-txakurren lehiaketa. Txakurrak ardiak ukuiluan sartzen ahalegintzen ari dira artzainaren aginduak jarraituz. Pertsonaiak: artzaina, txakurra eta ardiak.</li> <li>- Lapurreta. Lapur talde batek banketxe bat lapurtzen ari da. Pertsonaiak: lapurrak, poliziak, banketxeko langilea eta banketxean dagoen jendea.</li> <li>- Ikasketa-bidaia. Ikasleak Berlinera bidean dira, autobusean, ikasketa-bidaian. Pertsonaiak: ikasleak, irakasleak eta autobus gidaria.</li> <li>- Eskola-emankizunak. Irakaslea matematika-eskolak ematen ari da. Pertsonaiak: ikasleak eta irakaslea.</li> <li>- Zirkoa. Herritarra zirko-ikuskitza ikusten ari dira, eta bertan animalia-hezitzailea ari da ikuskizuna ematen. Pertsonaiak: hainbat animalia, animalia-hezitzailea eta publikoa.</li> </ul> <p>Ikasleek 5 minutu izango dituzte antzezpenak prestatzeko.</p>			
<b>4. jarduera</b>	“Zer da esketx bat?”	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira. Irakasleak galderak egingo ditu ikasleen aurrezagutza nolakoa den jakiteko, eta esketx bat zer den argitzen saiatuko da. Horretarako honelako galdera egin ditzake irakasleak:</p> <p>Balitzko galderak: “Zer da esketx bat? Zein helburu du esketxak? Ikusi duzue inoiz esketxen bat? Non? Zenbat irauten dute esketxek?”</p> <p>Ikasle guztiek esketx bat zer den ulertu ostean, irakasleak esketx baten <a href="#">bideoa</a> jarriko du, adibide moduan.</p>			



<b>5. jarduera</b>	Esketxa taldean asmatzea 1	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Talde txikietan. Irakasleak hurrengo saioetan egingo duten lana azalduko die ikasleei. Bospasei ikasleko taldeak egingo dituzte, eta gehienez 5 minutuko esketx bat sortuko dute, gero, gainerako taldeen aurrean antzetzeko.</p> <p>Talde bakoitzak idazkari bat izendatuko du, eta irakasleak orri zuri bat eta arkatz bana banatuko dizkie idazkariei. Talde bakoitzak, ideia-jasa egin eta gero, esketxaren gaia adostuko dute, eta idazkariak eta erabakiak paperean idatziko ditu.</p>			
<b>6. jarduera</b>	Hausnartzeko tartea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioen garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balizko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu du? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak?”</p> <p>Derrigorrezko galdera: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazioaren orria</b> betetzeko.</p>			



2. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Gorputz-adierazpenaren baliabideak eta mugimenduak erabiltzea egoerak adierazteko.</p> <p>Talde txikian lan egitea eta denon artean erabakiak hartzea.</p> <p>Sormena eta irudimena erabiltzea gidoi bat idazteko.</p>		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Orri zuriak, arkatzak eta autoebaluazio-orria (3. eranskina),		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.</p>			
<b>2. jarduera</b>	“Kamera geldoa”	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Launaka. Taldeak gimnasioan zehar kokatuko dira. Irakasleak hainbat egoera edo ekintza irakurriko ditu, ozenki, eta banan banan. Ikasleek irakasleak esandako ekintzak antzestu beharko dituzte, baina oso astiro; erritmo arruntean baino askoz astiroago (kamera geldoa).</p> <p>Irakasleak honelako ekintzak zerrenda ditzake:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Futbol partida</li> <li>- Moda-desfilea</li> <li>- Auto-lasterketa</li> <li>- Hegaluzearen arrantza</li> <li>- Esku-pilota partida</li> <li>- Rock kontzertua</li> <li>- Fruta-salmenta</li> <li>- Balleta</li> </ul>			



<b>3. jarduera</b>	"Kontuz!"	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Banaka. Ikasleak jolas-eremuaren alde batean hasi eta beste aldera desplazatuko dira oinez. Ikasleak bidean daudenean, irakasleak "Kontuz! Sagarrak ari dira erortzen zerutik" moduko esaldiak esango ditu —arrisku baten berri ematen duten esaldiak izango dira—. Esaldia entzutean, ikasleek arrisku hori saihesten ari direla antzetzuko dute.</p> <p>Irakasleak honelako esaldiak esan ditzake:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- "Kontuz! Sagarrak ari dira erortzen zerutik!</li> <li>- Kontuz! Geziak alboetatik!</li> <li>- Kontuz! Lurra erre egiten du, brasa dago lurrean!</li> <li>- Kontuz! Lurra benetan irristakor dago!"</li> </ul>			
<b>4. jarduera</b>	Esketxa taldean asmatzea 2	<b>Denbora</b>	25 min
<p>Talde txikietan. Aurreko saioko "Esketxa taldean asmatzea 1" jardueran egin diren talde berberak egingo dira oraingoan ere. Denen artean esketxean agertuko diren pertsonaiak zeintzuk eta nolakoak izango diren adostuko dute. Ondoren, ikasle bakoitza zein pertsonaia izango den erabakiko dute.</p> <p>Hurrengo eginbeharra gidoia idaztea izango da. Taldekide guztien artean esketxean zer gertatuko den erabakiko dute, eta pertsonaia bakoitzak zer esango duen. Idazkariak paperean jasoko ditu bai erabakiak, bai pertsonaien arteko elkarrizketak.</p> <p>Behin elkarrizketa adostu eta idatzitakoan, ikasleek antzezpenerako zein material beharko duten erabakiko dute, eta zerrenda hori paperean jasoko du idazkariak. Esketxa antzezteko ikastetxeko materiala zein etxetik ekarritakoa erabiliko dute (mozorroak, margoak, objektuak...).</p> <p>Denbora izanez gero, entseguak hasiko dituzte.</p>			
<b>5. jarduera</b>	Hausnartzeko tartea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balitzko galderak: "Guztiok hartu al duzue parte? Erabakiak denon artean hartu al dituzue? Guztion ideiak kontuan izan al dituzue? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu du? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak?"</p> <p>Derrigorrezko galdera: "Zer ikasi duzue gaur?"</p> <p>Saio bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			





<b>3. saioa</b>			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Gorputz-adierazpenaren baliabideak eta mugimenduak erabiltzea, egoerak eta emozioak adierazteko.</p> <p>Talde txikian lan egitea eta erabakiak adostea, eta sormena eta irudimena erabiltzea gidoi bat idazteko.</p>		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Ekintza-txartelak (4. eranskina) eta autoebaluazio-orria (3. eranskina)		
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.</p>			
<b>2. jarduera</b>	Zertan ari diren asmatzea	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Talde txikietan. Irakasleak ekintza-txartelak izango ditu eskuetan, eta talde bakoitzak horietako lau hartuko ditu. Txarteletan idatzita egoera jakin bat deskribatuko da. Talde bakoitzak, mimikaren bidez, hartu dituen txarteletan idatzita agertzen dena antzeztuko du gainerako taldeen aurrean, eta ikusten ari direnek antzeztutako egoera zein diren asmatzen saiatuko dira.</p> <p>Hona hemen irakasleak txarteletan idatzi ditzakeen zenbait egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jendea erakusleihoei begira</li> <li>- Lagun bat telefonoz hitz egiten telefono-kabina batean</li> <li>- Lagun-talde bat zineman, beldurrezko film bat ikusten</li> <li>- Zirkuko animalia-hezitzaile bat lanean</li> <li>- Lagun talde bat dantzaleku batean dantzan</li> <li>- Lagun talde bat hondartzan, eguzkia hartzen</li> <li>- Ikasleek bost minutu inguru izango dituzte antzezpenak prestatzeko.</li> </ul>			



3. jarduera	Esketxa taldean asmatzea 3	Denbora	30 min
<p>Talde txikietan. Aurreko saioko “Esketxa taldean asmatzea 2” jardueran egin diren talde berberak egingo dituzte ikasleek oraingoan ere, eta talde bakoitzak txoko batean entseatuko du. Bertan, ikasleek aurreko saiotan prestatutako gidoia birpasatuko dute, ondoren, entseatzeko hasteko. Behin eta berriro entseatuko dute esketxa, gidoia eta elkarrizketak buruz ikasi arte. Ikasteko denbora gehiago behar duenak, etxera eraman dezake gidoia bertan ikasteko.</p> <p>Saioa bukatu aurretik, zer material beharko duten gogoratuko dute ikasleek, eta etxetik zer ekarri behar duten adostuko eta zehaztuko (mozorroak, margoak...).</p>			
4. jarduera	Hausnartzeko tarte	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioen garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balizko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu du? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak?”</p> <p>Derrigorrezko galdera: “ Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			



4. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	Gorputz-adierazpenaren baliabideak eta mugimenduak erabiltzea, egoera eta emozioak adierazteko eta interpretatzeko. Jendaurrean aritzeko lotsa gainditzea eta nor bere buruan konfiantza izatea.		
<b>Non</b>	Aretoa edo gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Mimika-jolaserako kutxa eta txartelak (5. eranskina), esketxa antzetzeko behar den materiala, autoebaluazio-orria (3. eranskina), ikasleen koebaluazio-orria 1 (7. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	“Mimika-jolasa”	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Bi taldetan. Aurreko bi saioetako mimika-jolaseko talde berberak egingo dira. Gainera, saio guztietako mimika-jolasetan lortutako puntuak batu egingo dira unitatea bukatzen denean, talde irabazlea zein izan den jakiteko.</p> <p>Irakasleak bi talde egingo ditu, eta horietako bakoitza gimnasioaren alde banatan jarriko da. Erdian, berriz, kutxa bat txarteltxoekin, hain zuzen ere mimika-jolaserako kutxa eta txartelak; txarteletan imitatu beharreko objektuak eta egoerak agertuko dira idatzita. Irakasleak aukeratu du zein taldek emango dion hasiera jolasari.</p> <p>Taldekide batek txartel bat hartuko du, eta txartela taldeko bizpahiru kideri erakutsiko die. Txartela irakurri duten ikasle horiek, mimikaren bidez, txartelean jartzen duena antzetzeko dute gainerako ikasleen aurrean —taldekideen zein aurkarien aurrean—.</p> <p>Antzezpen labur hori prestatzeko minutu bat izango dute. Prest daudenean, beste minutu bat izango dute taldekideen aurrean esketxa antzetzeko. Begira dauden taldekideak zer den</p>			

<p>antzezten ari direna asmatzen saiatuko dira.</p> <p>Denbora tarte horretan, antzezten ari diren ikasleen taldeko kideek txartelean idatzita zer dagoen asmatzen badute, puntu bat eskuratuko du taldeak. Asmatzen ez badute, berriz, bigarren taldeari emango zaio erantzuteko aukera, eta txanda hartuko dute.</p>			
<b>3. jarduera</b>	Esketxa taldean asmatzea 4	<b>Denbora</b>	35 min
<p>Talde txikietan. Aurreko saioetako “ Esketxa taldean asmatzea 3” jardueran egindako talde berberak osatuko dituzte oraingoan ere, eta esketxa entseatuko dute. Ondoren, 10 minutu izango dituzte ikuskizuna prestatzeko (materiala, mozerroak...), emanaldia eskaini aurretik.</p> <p>Emanaldia antzezlekuan izango da, eta eskolako beste ikasleak gonbidatu daitezke esketxak ikustera.</p>			
<b>4. jarduera</b>	Hausnartzeko tarteak	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioen garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balitzko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu du? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak?”</p> <p>Derrigorrezko galderak: “ Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-</b> eta <b>ikasleen koebaluazio-orria 1</b> betetzeko.</p>			



5. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Hainbat egoeratan gorputz-perkusioa erabilia sortutako egiturak errepikatzea eta ikastea.</p> <p>Musika eta erritmoa jarraituz, Cumberland Reel eta Anne Marie Reel dantzen pausoak errepikatzea eta ikastea.</p>		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Gorputz-perkusioari buruzko tutoretza-bideoak, bi ordenagailu eramangarri eta Cumberland Reel eta Reel Anne Marie dantzei buruzko tutoretza-bideoak, azalpen-testuak eta autoebaluazio-orria (3. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.</p>			
<b>2. jarduera</b>	Gorputz-perkusioa zer den ulertzea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak biribilean eseriko dira, eta irakasleak galderak egingo ditu ikasleek aurrez zenbat dakiten jakiteko, eta, ondoren, gorputz-perkusioa zer den azalduko du. Horretarako, irakasleak honelako galderak egin ditzake:</p> <p>“Zer da gorputz-perkusioa? Zein gorputz atal erabil dezakegu? Ikusi al duzue inoiz gorputz-perkusioaren bidezko ikuskizunik?”</p> <p>Ikasle guztiek gorputz-perkusioa zer den ulertu ostean, irakasleak <a href="#">bideo</a> pare bat jarriko du adibide moduan.</p>			


3. jarduera	"Kaixo!"	Denbora	15 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira, eta irakasleak gorputz-perkusioaren bidezko erritmo-patroi erraz bat irakatsiko die. Egitura horrek hiru konpas izango ditu, eta konpas bakoitzak bi kolpe, alegia, bi beltz (bi lauko konpasa).</p> <p>Hona hemen landuko den egitura:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1. konpasa. Bi txalo (bi beltz).</li> <li>- 2. konpasa. Oinekin bi kolpe lurraren kontra (bi beltz); ezker oinarekin lehenengo kolpea eta eskuineko oinarekin bigarrena.</li> <li>- 3. konpasa. Eskua eman, bi kolpetan (bi beltz). Aldi berean "Kaixo" esango dute ikasleek, baina kolpe bakoitzean silaba bat ahoskatuz. Honela: "Kai / xo" (bi beltz).</li> </ul> <div data-bbox="199 801 1045 974" style="text-align: center;"> <p>txalo txalo oin oin "kai" "xo"</p> </div> <p>Jarraian, ikasleak binaka eseriko dira, eta parez pare daudela, ikasitako egitura zenbait aldiz errepikatuko dute.</p> <p>Ondoren, launaka elkartuko dira, eta karratu bat irudikatuko dute. Oraingoan, ikasle bakoitzak bere diagonalean dagoen ikaslearekin osatuko du bikotea. Beraz, bi bikote izango dira: A bikotea eta B bikotea. A bikoteak bakarrik hasiko du jarduera, eta egitura behin eta berriz errepikatuko du. Bitartean, B bikotea prestatu egingo da egitura hasieratik hasteko honako momentu jakin honetan:</p> <p style="padding-left: 40px;">Egituraren hirugarren errepikapenean, A bikoteak egituraren 2. konpasa hasten duenean, orduan, B bikoteak egituraren 1. konpasa hasiko du. Alegia, A bikoteak oinekin bi kolpe ematen dituen bitartean, B bikoteak bi txalo eman beharko ditu. Bi bikoteek sekuentziak hainbat alditan errepikatuko dituzte, baina kanona eginez.</p> <p>Ondoren, seinaka elkartuko dira, eta biribil bat irudikatuko dute. Oraingoan, ikasleak erdira begira jarri eta bakoitza bere parean dagoen ikaslearekin osatuko du bikotea. Beraz, hiru bikote izango dira: A bikotea, B bikotea eta C bikotea.</p> <p><b>A bikotea.</b> Bakarrik hasiko du jarduera, eta egitura behin eta berriz errepikatuko du. Bitartean, B eta C bikoteak prestatu egingo dira egitura hasteko honako momentu jakin hauetan:</p> <p><b>B bikotea.</b> Egituraren hirugarren errepikapenean, A bikoteak egituraren 2. konpasa hasten duenean, orduan, B bikoteak egituraren 1. konpasa hasi beharko du. Alegia, A bikoteak oinekin bi kolpe ematen dituen bitartean, B bikoteak bi txalo eman</p>			



<p>beharko ditu, kanona eginez.</p> <p><b>C bikotea.</b> Egituraren hirugarren errepikapenean, B bikoteak egituraren 2. konpasa hasten duenean, orduan, C bikoteak egituraren 1 konpasa hasi beharko du. Alegia, B bikoteak oinekin bi kolpe ematen dituen bitartean, C bikoteak bi txalo eman beharko ditu, kanona osatuz.</p> <p>Ondoren, ikasle guztiak batera elkartuko dira, eta bi biribil zentrokide irudikatuko dituzte, alegia, biribil bata bestearen barrualdean egongo da. Kanpoko eta barneko biribiletako ikasleak elkarri begira jarriko dira, parean duten ikaslearekin bikotea osatuz. Oraingo honetan, ikasle guztiek batera hasiko dute egitura, baina bigarren konpasean, hau da oinekin lurra kolpatzen dutenean, bakoitzak bere eskuinera pauso bat emango du, eta lekuz eta bikotez aldatuko dute. Egitura hori hainbat aldiz errepikatuko dute, irakasleak jarduera bukatzeko agindu arte.</p>			
<b>4. jarduera</b>	Munduko dantzak 1 (Cumberland Reel eta Anne Marie Reel)	<b>Denbora</b>	20 min
<p>Bi taldetan. Irakasleak bi ordenagailu eramangarri jarriko ditu lurrean, gimnasioaren alde banatan, eta munduko bi dantzen tutoretza-bideoak eta haiei dagozkien azalpenak prest izango ditu ordenagailuaren mahaigainean. Ordenagailu batean, <a href="#">Cumberland Reel</a> dantza eskoziarra nola dantzatzen den —hari dagozkion azalpenak— talde bateko ikasleek. Beste ordenagailuan, beste taldekoek <a href="#">Anne Marie Reel</a> dantza kanadarra nola dantzatzen den ikusiko dute beste bideo batean.</p> <p>Ikasleek egokitu zaien dantzaren pauso guztiak ikasiko dituzte. Horretarako, ordenagailu eramangarrian bideoa, azalpenak eta marrazkiak behin eta berriro ikusteko aukera izango dute.</p>			
<b>5. jarduera</b>	Hausnartzeko tartea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balitzko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Erabakiak denon artean hartu al dituzue? Denon ideiak kontuan hartu al dituzue? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu al du antzeztean? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak? Zer iruditu zaizue dantza afrikarra?”</p> <p>Derrigorrezko galdera: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera oso une aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			

6. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	Hainbat egoeratan gorputz-perkusioaz baliatuta erritmo-patroiak errepikatzea eta ikastea. Musika eta erritmoa jarraituz, Cumberland Reel eta Anne Marie Reel dantzen pausoak ikastea eta irakastea.		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Bi ordenagailu eramangarri, dantzen doinuak, dantzen tutoretza-bideoak eta eta autoebaluzio-orria (3. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	“1,2,3”	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Launaka. Irakasleak gorputz-perkusioa baliatuta erritmo-patroi bat irakatsiko die. Egitura horretan lau zenbaki agertuko dira; 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak hain zuzen, eta zenbaki bakoitza agindu bat izango da. Honela:</p> <p>1 zenbakia: egin txalo eskuekin.</p> <p>2 zenbakia: egin txalo eskumako eskuarekin ezkerreko izterrean.</p> <p>3 zenbakia: jarri bi eskuak buru atzean, untxiaren belarriak irudikatzen.</p> <p>Ikasleek erritmo-patroi bat egiteko, bakoitzak tokatzen zaion zenbakia esango du, eta zenbaki horri dagokion agindua bete beharko du; hau da, dagokion mugimendu zehatza egingo du — izan gogoan irakasleak aurretik erritmo-patroia zein den irakatsiko diela—.</p> <p>Jardueraren helburua da, akatsik egin gabe, behin eta berriro erritmo-patroia errepikatzea, eta, ahal den neurrian, patroia hori gero eta azkarrago egitea.</p> <p>Hona hemen zenbait aldaerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeak nahi besteko kideetakoak izan daitezke.</li> </ul> <p>Egitura luzeagoak eta konplexuagoak egin daitezke.</p>			



<b>3. jarduera</b>	Gorputz-perkusioa. Erritmo-patroi konplexua sortzea	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakaslea ikasleen aurrean jarriko da eta gorputz-perkusioaz baliatuta <u>erritmo-patroi bat</u> irakatsiko die (aurreko jarduerakoa baino konplexuagoa). Ikasleek behin eta berriro errepikatuko dituzte patroi horiek, behar bezala ikasi arte. Oraingo musika-patroi honetan eskuak eta oinak erabiliko dira.</p>			
<b>4. jarduera</b>	Munduko dantzak 2 (Cumberland Reel eta Anne Marie Reel)	<b>Denbora</b>	20 min
<p>Bi taldetan. Aurreko saioan, munduko dantzen inguruko 4. jardueran egin den bezala, oraingoan ere irakasleak bi ordenagailu eramangarri jarriko ditu lurrean, gimnasioaren alde banatan. Irakasleak munduko bi dantzen tutoretza-bideoak eta haiei dagozkien azalpenak prest izango ditu ordenagailuen mahaigainetan. Ordenagailu batean, bideo batean ikusiko dituzte talde bateko ikasleek <u>Cumberland reel-dantza</u> eskoziarra nola dantzatzeko den eta hari dagozkion azalpenak. Beste ordenagailuaren mahaigainean, beste taldekoek <u>Anne Marie reel-dantza</u> kanadarraren bideo bat ikusiko dute.</p> <p>Ikasleek egokitu zaien dantzaren pauso guztiak ikasi beharko dituzte. Horretarako, ordenagailu eramangarriko bideoa, azalpenak eta marrazkiak nahi beste aldiz ikusteko aukera izango dute.</p> <p>Behin pausoak ikasi eta erreparatu ondoren, taldeak nahastu egingo dira: lehenengo taldeko ikasleen erdia bigarren taldearekin elkartuko da; eta alderantziz, bigarren taldeko ikasleen beste erdia lehenengo taldearen beste erdiarekin elkartuko da. Behin taldeak nahastu direnean, aurretik ikasitako dantzak ikasleek elkarri irakatsiko dizkiete. Beraz, horrela, ikasle guztiak bi dantzak ikasiko dituzte: Cumberland reel- eta Anne-Marie reel-dantzak, eta, aldi berean, irakasle- eta ikasle-roletan arituko dira ikasleak.</p> <p>Jarduera bukatzeko, irakasleak musika jarriko du, eta ikasle guztiak batera bi dantzak dantzatuko dituzte.</p>			

5. jarduera	Hausnartzeko tartea	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioen garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balizko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu du? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak?”</p> <p>Derrigorrezko galderak: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			


7. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	Gorputz-perkusioa erabilia eta sormenaz baliatuta, musika-patroiak errepikatzea, ikastea eta asmatzea. Musika eta erritmoa jarraituz, Oriako sorgin-dantzaren pausoak errepikatzea eta ikastea.		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Oriako sorgin-dantzaren doinua, musika-aparatua eta autoebaluazio-orria (3. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Kanon bat sortzea	<b>Denbora</b>	15 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak biribilean eta zutik jarriko dira, eta irakasleak, gorputz-perkusioaz baliatuz, musika-patroi bat irakatsiko die ikasleei, lau lauko konpasa erabiliz. Patroi horrek honako lau atal edo konpas hauek izango ditu:			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. konpasa.</b> 4 txalo (lau beltz).</li> <li>- <b>2. konpasa.</b> 8 kriskitin (8 kortxea). Lehenengo kriskitina eskuineko atzamarrekin. Bigarrena ezkerrekoekin. Hirugarrena berriro eskuineko atzamarrekin. Horrela, etengabe, eskuak txandakatuz, zortzi kriskitin egin arte.</li> <li>- <b>3. konpasa.</b> 16 kolpe izterretan (16 kortxeardi). Lehenengo txaloa eskuineko eskuarekin eskuineko izterrean. Bigarrena ezkerreko eskuarekin ezkerreko izterrean. Hirugarrena berriro eskuineko eskuarekin eskuineko izterrean. Horrela, etengabe,</li> </ul>			

eskuak txandakatuz, izterretan hamasei txalo eman arte.

- **4. konpasa.** 2 oin-kolpe lurraren kontra (2 zuri). Lehenengo oin-kolpea eskuineko oinarekin, eta bigarrena ezkerreko oinarekin.

Jarraian, ikasle guztiek ikasitako musika-patroia aldi berean errepikatuko dute.

Ondoren, kanon bat sortuko dute. Irakasleak biribilean dauden ikasleak lau taldetan banatuko ditu: A taldea, B taldea, C taldea eta D taldea. **A taldeak** bakarrik hasiko du jarduera, eta patroia behin eta berriz errepikatuko du. Bitartean, beste hiru taldeak prestatu egingo dira patroia honako momentu zehatz hauetan hasteko:



**B taldea.** Lehen kanona sortzeko, patroia hiru aldiz errepikatuko dute, A taldeak 2. konpasa hasten duenean, B taldeak 1. konpasa hasiko du. Alegia, A taldeak 8 kriskitin egiten dituen bitartean, B taldeak lau txalo egingo ditu,

**C taldea.** Bigarren kanona sortzeko, patroia hiru aldiz errepikatuko dute, B taldeak 2. konpasa hasten duenean, C taldeak 1. konpasa hasiko du. Alegia, B taldeak 8 kriskitin egiten dituen bitartean, C taldeak lau txalo egingo ditu.

**D taldea.** Hirugarren kanona sortzeko, patroia hiru aldiz errepikatuko dute, C taldeak 2. konpasa hasten duenean, D taldeak 1. konpasa hasiko du. Alegia, C taldeak 8 kriskitin egiten dituen bitartean, D taldeak lau txalo egingo ditu.



Gorputz-perkusioaz baliatuz egindako patroia behin eta berriz errepikatuko dute.



<b>3. jarduera</b>	Gorputz-perkusioaz baliatuz musika-patroia asmatzea	<b>Denbora</b>	15 min
--------------------	---	----------------	--------



Lau taldetan. Aurreko jardueran egindako talde berberak egingo dira. Talde bakoitzak gorputz-perkusioaz baliatuz musika-patroi sinple bat asmatuko du. Hainbat kolpe, txalo eta soinu erabiliko dituzte, eta iraupen eta abiadura desberdina izango dute. Lau-lauko lau konpas izango ditu patroiak, eta hori behin eta berriz errepikatuko dute ikasleek, ondo ikasi eta automatizatu arte.



Azken minutuetan, talde bakoitzak gorputz-perkusioaz baliatuz sortutako musika-patroia aurkeztuko du gainerako ikasleen aurrean. Asmatutako patroia hainbat aldiz errepikatuko dute.





<b>4. jarduera</b>	Euskal dantzak 1 (Oriako sorgin-dantza)	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Ikasle guztiak batera. Lehendabizi, irakasleak <a href="#">Oriako sorgin-dantzaren</a> doinua jarriko du, ikasleek dantzan hasi aurretik erritmoa, iraupena eta doinua ezagutu ditzaten. Ondoren, irakasleak dantzaren pausoak irakatsiko ditu, banan-banan eta hurrenkeran, eta ikasleek, irakaslearekin batera, pausoak errepikatuko dituzte, pauso horiek guztiak ongi ikasi arte.</p> <p>Pausoak ikasitakoan, ikasleak bi lerrotan jarriko dira, eta lerroak elkarri begira. Beraz, ikasle bakoitzak parean duena izango du bere bikote. Hasieran, ikasleek musikarik gabe eta poliki-poliki dantzatuko dituzte ikasitako pausoak, eta, ondoren, musikarekin eta apur bat azkarrago.</p>			
<b>5. jarduera</b>	Hausnartzeko tartea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balitzko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu al du dantza egiterakoan? Zaila ala erraza iruditu zaizue gorputz-perkusioaren inguruko jarduera? Eta euskal dantza ikastea?”</p> <p>Derrigorrezko galdera: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera oso une aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			



8. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	Musika eta erritmoa jarraituz, Oriako sorgin-dantza eta Zazpi jauzi euskal dantzen pausoak errepikatzea eta ikastea. Sormena erabiliz eta taldean lan eginez, koreografia bat asmatzea.		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Oriako sorgin-dantzaren eta Zazpi jauzi dantzaren musika, 4 musika-aparatu eta autoebaluazio-orria (3. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Euskal dantzak 2 (Oriako sorgin-dantza eta Zazpi jauzi)	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Ikasle guztiak batera. Aurreko saioan ikasitako pausoak gogora ekarriko ditu irakasleak. Ondoren, irakasleak pauso berriak banan-banan eta hurrenkeran irakatsiko dizkie, eta aurretik ikasitako pausoekin lotuko ditu, lehendabizi musikarik gabe eta ondoren musikarekin. Ikasleek ikasitako pausoak behin eta berriz errepikatuko dituzte, orain arteko pauso guztiak ongi ikasi arte.</p> <p>Behin <a href="#">Oriako sorgin-dantza</a> ikasitakoan, beste euskal dantza bat ikasten hasiko dira ikasleak: <a href="#">Zazpi jauzi</a>. Lehendabizi, irakasleak Zazpi jauziren doinua jarriko du, ikasleek dantzan hasi aurretik erritmoa, iraupena eta doinua ezagutu ditzaten. Ondoren, irakasleak dantzaren pausoak irakatsiko ditu, banan-banan eta hurrenkeran, eta ikasleek, irakaslearekin batera, pausoak errepikatuko dituzte, pauso horiek guztiak ongi ikasi arte.</p> <p>Zazpi jauzi dantza jauzi-dantza bat denez, pauso bakoitzak bere izena du, eta dantzari batek pauso horiek kantatzen ditu, hurrengo datorren pausoa aurreikusteko, dantzan ari diren bitartean. Hona hemen Zazpi jauzi dantzako jauzien izenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdizka</li> </ul>			



<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdizka lauretan</li> <li>- Jauzi</li> <li>- Dobra</li> </ul> <p>Pauso horiek ikasitakoan, ikasleak biribilean kokatuko dira, erlojuaren kontrako norabidean, bata bestearen atzean, aurrekoaren bizkarrari begira. Hasieran, poliki-poliki eta musikarik gabe dantzatuko dute, eta irakaslea izango dute eredu; alegia, irakasleak pausoen izenak esan eta pausoak dantzatzen dituen bitartean, ikasleek harekin batera dantzatuko dituzte, lehenengo musikarik gabe eta ondoren musikarekin. Ikasleek pausoak bereganatu ahala, dantzatzeko abiadura azkartuko dute.</p>			
<b>3. jarduera</b>	Koreografia bat sortzea1	<b>Denbora</b>	30 min
<p>Lau taldetan. Talde bakoitzari musika-aparatu bana banatuko die irakasleak. Aurreko saioan, gustuko abestiak ekar ditzatela eskolara eskatuko die irakasleak ikasleei. Ekarritako abestien artetik, talde bakoitzak abesti bat aukeratuko du.</p> <p>Abestiaren erritmoa, iraupena eta estiloa kontuan izanik, talde bakoitzak koreografia erraz bat sortuko du. Irakasleak pauso gutxirekin egindako koreografia izan behar duela zehaztuko du, eta, prestatzeko, bi saio erabiliko direlako.</p>			
<b>4. jarduera</b>	Hausnartzeko tartea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balitzko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu al du dantza egiterakoan? Zaila ala erraza iruditu zaizue euskal dantzak ikastea? Eta koreografia bat asmatzea?”</p> <p>Derrigorrezko galdera: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera oso une aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			

9. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	Musika eta erritmoa jarraituz, Oriako sorgin-dantza eta Zazpi jauzi euskal dantzen pausoak errepikatzea eta ikastea. Sormena erabiliz eta taldean lan eginez, koreografia bat asmatzea.		
<b>Non</b>	Gimnasioa		
<b>Materiala</b>	Oriako sorgin-dantzaren eta Zazpi jauziren doinuak, 4 musika-aparatu eta autoebaluazio-orria (3. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Euskal dantzak 3 (Zazpi jauzi eta Oriako sorgin-dantza)	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Ikasle guztiak batera. Aurreko saioan ikasitako Zazpi jauziren pausoak gogora ekarriko ditu irakasleak. Ondoren, irakasleak pauso berriak banan-banan eta hurrenkeran irakatsiko dizkie, eta aurretik ikasitako pausoekin lotuko ditu, lehendabizi musikarik gabe eta ondoren musikarekin. Ikasleek ikasitako pausoak behin eta berriz errepikatuko dituzte, orain arteko pauso guztiak ongi ikasi arte.</p> <p>Pauso guztiak ikasitakoan, ikasleak biribilean kokatuko dira, erlojuaren kontrako norabidean, bata bestearen atzean, aurrekoaren bizkarrari begira. Hasieran, poliki-poliki eta musikarik gabe dantzatuko dute, eta irakaslea izango dute eredu; alegia, irakasleak pausoen izenak esan eta pausoak dantzatzen dituen bitartean, ikasleek ere irakaslearekin batera dantzatuko dute. Ondoren, musikarekin dantzatuko dute. Ikasleek pausoak bereganatu ahala, dantzatzeko abiadura azkartuko dute.</p> <p><a href="#">Zazpi jauzi</a> eta <a href="#">Oriako sorgin-dantza</a> ikasi ostean, bi euskal dantzak berriro entseatuko dituzte.</p>			



<p><b>3. jarduera</b></p>	<p>Koreografia bat sortzea 2</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>30 min</p>
<p>Lau taldetan. Talde bakoitzari musika-aparatu bana banatuko die irakasleak, eta aurreko saioan “Koreografia bat sortzea 1” jardueran hasitako koreografia sortzen jarraituko dute.</p> <p>Pauso guztiak adostu ostean, ikasleek behin eta berriro entseatuko dute koreografia, ondo ikasi eta barneratu arte.</p>			
<p><b>4. jarduera</b></p>	<p>Hausnartzeko tartea</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balitzko galderak: “Guztiok hartu al duzue parte? Ikaskide guztien proposamenak entzun dituzue? Norbait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu al du dantza egiterakoan? Zaila ala erraza iruditu zaizue euskal dantzak ikastea? Eta koreografia bat asmatzea?”.</p> <p>Derrigorrezko galera: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera oso une aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko, eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko..</p> <p>Ondoren, irakasleak gogora ekarriko du azkeneko saioan dantza-ikuskizuna egingodutela ikasleek, eta ikuskizunaren inguruan hitz egingo dute. Ikuskizunean orain arte ikasitako dantzak dantzatuko dituzte jendaurrean: munduko dantzak, euskal dantzak eta ikasleek haiek sortutako koreografiak. Gainera, emanaldirako zein arropa ekarri behar duten adostuko dute denen artean. Adibidez: jeansak eta elastiko zuria.</p> <p>Bukatzeke, zikloko gainerako ikasleak gonbidatuko dituzte ikuskizuna ikustera.</p>			

10. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	Musika eta erritmoa jarraituz, ikasitako euskal dantzak, munduko dantzak eta asmatutako koreografiak errepikatzea eta dantzatzea. Jendurrean aritzeko lotsa gainditzea eta nork bere buruan konfiantza izatea.		
<b>Non</b>	Antzezlekua		
<b>Materiala</b>	Bideokamera, musika, musika-aparatua, autoebaluazio-orria (3. eranskina), ikasleen koebaluazio-orria 2 (8. eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioaren aurkezpena	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Dantza-ikuskizunerako prestatzea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Dantza-ikuskizuna egiteko prestatuko dira ikasleak (arropak, makillajea eta dekoratua), eta horretarako hamar minutu izango dituzte.			

3. jarduera	Dantza-ikuskizuna	Denbora	40 min
<p>Ikasleek ikastetxeko antzezlekuan egingo dute dantza-ikuskizuna, eta, aurreko saioan aipatutako moduan, zikloko gainerako ikasleak gonbidatuko dituzte emanaldia ikustera. Ikuskizunak gehienez 40 minutu iraungo ditu.</p> <p>Ikasleek aurreko saioetan ikasitako dantzak eta sortutako koreografiak dantzatuko dituzte. Batetik, ikasle guztiek batera Cumberland reel- eta Anne Marie reel-dantzak eta Oriako sorgin-dantza eta Zazpi jauzi, eta, bestetik, talde bakoitzak berak sortutako koreografia.</p> <p>Dantzaldia bideoan grabatuko da, gero ikastetxeko webgunean argitara emateko.</p>			
4. jarduera	Hausnartzeko tarte	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Balizko galderak: “Nor bait gaizki sentitu al da? Zergatik? Norbaitek lotsa sentitu al du jendaurrean aritzean? Urduri jarri al zarete? Nola lortu duzue urduritasuna gainditzea?”.</p> <p>Derrigorrezko galderak: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera oso une aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta <b>autoebaluazio-</b> eta <b>ikasleen koebaluazio-orria 2</b> betetzeko.</p>			

**Eranskinak**

- 1. eranskina: Ikaslearen hasierako ebaluazio-orria
- 2. eranskina: Irakaslearen hasierako ebaluazio-orria
- 3. eranskina: Autoebaluazio-orria
- 4. eranskina: Ekintza-txartelak
- 5. eranskina: Mimika-jolasa
- 6. eranskina: Lorpenen jarraipen-orria
- 7. eranskina: Ikasleen koebaluazio-orria 1
- 8. eranskina: Ikasleen koebaluazio-orria 2
- 9. eranskina: Unitatearen ikasleen balioespena
- 10. eranskina: Ikus-entzunezko baliabideen zerrenda
- 11. eranskina: Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa: Gorputz Hezkuntzako programazioa

**IKASLEAREN HASIERAKO EBALUAZIO-ORRIA (1. eranskina)**

IZENA: \_\_\_\_\_ MAILA: \_\_\_\_\_

1. Dantzatzea gustuko al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahikoa
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, ezer ez
2. Euskal dantzarik ezagutzen al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, baten batzuk
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, bat ere ez
3. Munduko dantzarik ezagutzen al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, baten batzuk
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, bat ere ez
4. Dantzatu al dituzu inoiz?
  - a. Bai, sarritan
  - b. Bai, batzuetan
  - c. Ez, gutxitan
  - d. Ez, inoiz ez
5. Antzerkia eta mimika gustuko al dituzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahikoa
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, ezer ez

6. Antzerkia edo antzeko ekintzarik egin al duzu inoiz?
- a. Bai, sarritan
  - b. Bai, batzutan
  - c. Ez, gutxitan
  - d. Ez, inoiz ez
7. Zerbait adierazi nahi erabiltzen al dituzu eskuak, begiradak, keinuak...?
- a. Bai, askotan
  - b. Bai, batzuetan
  - c. Ez, gutxi tan
  - d. Ez, inoiz ez
8. Esketx bat zer den ezagutzen al duzu?
- a. Bai, ongi
  - b. Bai, nahiko ongi
  - c. Ez, azaletik soilik
  - d. Ez, bat ere ez
9. Perkusioa gustuko al duzu?
- a. Bai, asko
  - b. Bai, nahikoa
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, ezer ez
10. Gorputz-perkusioa zer den ba al dakizu?
- a. Bai, ongi
  - b. Bai, zerbait
  - c. Ez, azaletik
  - d. Ez, ez dakit
11. Jolastu al zara noizbait gorputz-perkusioaz baliatuta?
- a. Bai, askotan
  - b. Bai, batzuetan
  - c. Ez, gutxitan
  - d. Ez, inoiz ez

**IRAKASLEAREN HASIERAKO EBALUAZIO-ORRIA (2. eranskina)**

TALDEAREN AURRE EZAGUTZA ETA ESPERIENTZIA	BAI	ERDIZKA	EZ
Ikasleek dantzatzea gustuko dute.			
Ikasleek euskal dantzaren bat ezagutzen dute eta noizbait dantzan egin dute.			
Ikasleek munduko dantzaren bat ezagutzen dute, eta noizbait dantzan egin dute.			
Ikasleek antzerkia eta mimika gustuko dituzte.			
Ikasleek antzerkia edo antzeko ekintzarik egin dute noizbait.			
Ikasleek esketxa zer den ezagutzen dute.			
Ikasleek musika eta perkusioa gustuko dituzte.			
Ikasleek badakite zer den gorputz-perkusioa.			
Ikasleek gorputz-perkusioa baliatuz jolastu dira noizbait.			

## AUTOEBALUAZIO-ORRIA (3. eranskina)

ONDO: BERDEA / HOLA-HOLA: HORIA / GAIZKI: GORRIA / EZIN DUT EGIN: URDINA / EZ DA ETORRI: BELTZA (IRAKASLEAK)							
IKASLEA  -----  TALDEA  -----	Janzkera	Jarduerak	Jarrera				Osasun- eta higie- ohiturak
	Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzen ditut	Gaitasun motorrean hobetzen ari naiz	Jardueretan, gustura hartzen dut parte eta jarrera positiboa dut	Harremanak emaitzaren gainera baliostean ditut	Irabaztea edo galtzea onartzen dut	Hausnartzeko denboran, taldean era positiboan eragiten dut eta kritika eraikitzaileak egiten ditut	Jarduera fisikoa egitean, osasuna eta higie- zaintzen ditut
1. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
2. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
3. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
4. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
5. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
6. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
7. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
8. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
9. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
10. saioa	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>



## EKINTZA-TXARTELAK (4. eranskina)

<b>Jendea erakusleihoei begira</b>	<b>Hondartzan, eguzkia hartzen</b>
<b>Auto-ilara bat</b>	<b>Zirkuko animalia-hezitzailea</b>
<b>Telefono-kabina batean, telefonoz hitz egiten</b>	<b>Diskoteka batean dantzan</b>
<b>Zineman beldurrezko film bat ikusten</b>	<b>Matematika-azterketa batean txuleta ateratzen</b>
<b>Badmintoneko partida bat</b>	<b>Supermerkatuan erosketak egiten</b>

## MIMIKA-JOLASA (5. eranskina)

<b>Zorabiatuta, itsasontzi batean</b>	<b>Bikote bat eztabaidan</b>
<b>Ordenagailu eramangarri bat</b>	<b>Jantziak probatzen, denda bateko probalekuan</b>
<b>Gidatzeko baimena lortzeko azterketa egiten</b>	<b>Erosketak egiten supermerkatuan</b>
<b>Mendian, bizikletaz ibiltzen</b>	<b>Zubi-saltoa egiten</b>
<b>Pailazoa</b>	<b>Zoologiko bat</b>
<b>Turista talde japoniar bat argazkiak ateratzen</b>	<b>Gazte bat whatsapp bidez idazten</b>
<b>Baserria</b>	<b>Pastel bat prestatzen</b>

<b>Umeak parkean txirristatik jaisten</b>	<b>Ibai batean piraguan arraunean</b>
<b>Izotzetan irristaketan</b>	<b>Aktore bat film batean antzezten</b>
<b>Lagun talde bat kartetan jolasean</b>	<b>Motor lasterketa bat</b>
<b>Sagarrondoa</b>	<b>Haurtxo txikia titia hartzen</b>
<b>Gizon bat bizarra egiten</b>	<b>Arropa zintzilikatzen</b>
<b>Basoan perretxikoak biltzen</b>	<b>Paisaia bat marrazten</b>
<b>Aerobik dantzatzen</b>	<b>Pizza jaten</b>
<b>Idazle bat eleberri bat idazten</b>	<b>Errugbi partida bat</b>

**LORPENEN JARRAIPEN-ORRIA (6. eranskina)**

<b>LH 5 EBALUAZIOA 201_/201_ Unitatearen izenburua: Gorputz--adierazpena</b>	Euskal dantzen oinarriko pausoak eta jauziak sinkronizatzen ditu	Dantzak asmatzean sormena eta irudimena du	Inprobisazio jardueretan bere mugimendua eta gorputz-adierazpena hainbat musika motekin egokitzen du	Gorputz-atalak eta hainbat objektu erabiliz erritmo batzuk esperimentatzen, sortzen eta errepikatzen ditu	Gorputz-adierazpeneko oinarriko teknikak aplikatuz hainbat egoera antzeztzen ditu	Gorputz-atalak eta objektuak erabiliz hainbat erritmo sortzen ditu	Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu sentrazioak eta emozioak komunikatzeko	Antzeppenak (esketak) sortzen eta antzeztzen ditu.	Besteen antzeppenak interpretatzen ditu	Gorputz-adierazpen baliabideak eta mugimendua sormen handiz erabiltzen du	Jardueretan naturaltasunez hartzen du parte, lotsa gaindituz	Iniziatiba azaltzen du antzezteko egoerak proposatzean eta sortzean	Jardueretan gustura hartzen du parte eta jarrera positiboa du	Rol desberdinak onartzen ditu	Besteen jarduera errespetatzen du
1.															
2.															
3.															
4.															
5.															
6.															
7.															
8.															
9.															
10.															
11.															
12.															
13.															
14.															
15.															
16.															
17.															
18.															

**IKASLEEN KOEBALUAZIO-ORRIA 1 (7. eranskina)**

ESKETXA ANTZEZTU OSTEKO EBALUAZIOA  Taldea:	1 taldea			2 taldea			3 taldea			4 taldea			5 taldea		
	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ
Talde osoak hartu du parte.															
Antzezle bakoitzak bere pertsonaiari zegozkion elkarrizketak ondo ikasi ditu.															
Antzezleek, hitzaz gain, gorputz-adierazpena (gorputz-mugimenduak eta aurpegi-keinuak) erabili dute.															
Antzezleen jantziak aproposak izan dira.															
Erabilitako materiala egokia izan da.															
Esketxaren gidoia originala eta barregarria izan da.															
Orokorrean, lan polita egin du talde osoak															

**IKASLEEN KOEBALUAZIO-ORRIA 2 (8. eranskina)**

DANTZA-IKUSKIZUNAREN OSTEKO EBALUAZIOA  Taldea:	1 taldea			2 taldea			3 taldea			4 taldea			5 taldea		
	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ	BAI	ERDIZKA	EZ
Talde osoak hartu du parte.															
Dantzari guztiek ondo ikasi dute koreografia.															
Dantzariak dantzan ari zirela ondo koordinatu dira.															
Dantzariak jantzi aproposak ekarri dituzte.															
Aukeratutako musika-estiloa koreografiarekin bat etorri da.															
Sortu duten koreografia polita eta originala izan da.															
Orokorrean, lan polita egin du talde osoak.															

**UNITATEAREN IKASLEEN BALIOESPENA (9. eranskina)**

1. “Gorputz-adierazpena” unitate didaktikoa gustukoa izan al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahikoa
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, ezer ez
2. Antzezen-jolasak gustatu al zaizkizu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahikoa
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, ezer ez
3. Esketxa asmatzea eta ikaskideen aurrean antzezteak zaila iruditu al zaizu?
  - a. Bai, oso zaila
  - b. Bai, nahiko zaila
  - c. Ez, nahiko erraza
  - d. Ez, oso erraza
4. Gorputz-perkusioaz baliatuz egindako jarduerak gustukoak izan al dituzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahikoa
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ez, ezer ez
5. Landutako euskal dantzak eta munduko dantzak egokiak izan al dira?
  - a. Bai, oso egokiak
  - b. Bai, egokiak

- c. Ez, zailak
- d. Ez, aspergarriak
6. Koreografia asmatzea zaila iruditu al zaizu?
- a. Bai, oso zaila
- b. Bai, nahiko zaila
- c. Ez, nahiko erraza
- d. Ez, oso erraza
7. Dantza-ikuskizuna egokia izan al da?
- a. Bai, oso egokia
- b. Bai, egokia
- c. Ez, desegokia
- d. Ez, luzeegia
- e. Ez, aspergarria
8. Irakaslearen lana (azalpenak, laguntza, motibazioa...) egokia izan da?
- a. Bai, oso egokiak
- b. Bai, egokiak
- c. Ez, erdipurdikoa
- d. Ez, desegokia
- e. Zertan hobetu dezake bere lana:
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
9. Zer aldatu edo hobetuko zenuke "Gorputz-adierazpena" unitatean:
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
10. Zer ikasi duzu unitate didaktiko honetan?
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_



**IKUS-ENTZUNEZKOEN BALIABIDEEN ZERRENDA (10. eranskina)****BIDEOAK**

- *Cumberland Reel*  
<https://danzasdelmundo.wordpress.com/category/043-cumberland-reel-escocia/>
- *Erritmo-patroi bat*  
<https://www.youtube.com/watch?v=0RpDrrPa8qQ>
- *Esketxa*  
<https://www.youtube.com/watch?v=Q4Hz7-7pQQw>
- *Gorputz-perkusioa (1 adibidea)*  
<https://www.youtube.com/watch?v=l0XdDKwFe3k>
- *Gorputz-perkusioa (2 adibidea)*  
<https://www.youtube.com/watch?v=B2Uclale2xE>
- *Gorputz-perkusioa (3 adibidea)*  
<https://www.youtube.com/watch?v=bv7anB4IrbE>
- *Gorputz-perkusioa (4 adibidea)*  
<https://www.youtube.com/watch?v=OjHHKNFMsI0>
- *Gorputz-perkusioa (5 adibidea)*  
<https://www.youtube.com/watch?v=C7XCvVgkqj8>
- *Oriako sorgin-dantza*  
<https://www.youtube.com/watch?v=W7hI80xGZsg>
- *Reel Anne Marie*  
<https://danzasdelmundo.wordpress.com/category/007-reel-anne-marie-canada/>
- *Zazpi jauzi dantza*  
<https://www.youtube.com/watch?v=FAm3Am6VWHc>

**LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA: GORPUTZ HEZKUNTZAKO  
PROGRAMAZIOA (11. eranskina)**

<b>LEHEN HEZKUNTZA (BIGARREN ZIKLOA)</b>			
<b>GORPUTZ HEZKUNTZA</b>			
<b>PROGRAMAZIOA</b>			
	<b>4. maila</b>	<b>5. maila</b>	<b>6. maila</b>
1. unitatea	Irristaketa	Atletismoa eta egoera fisikoa I	Atletismoa eta egoera fisikoa II
2. unitatea	<i>Azken dakotak</i> Ipuin motorra	“Antzara-jolasa”	<i>Aronsonen puzzlea</i> elkarlaneko egitura
3. unitatea	<i>Artzikirola</i>	<i>Tag</i> errugbia	Boleibola
4. unitatea	Gorputz-adierazpena I	Gorputz-adierazpena II	<i>Gorputz Hezkuntzako bizipenak</i> antzerkia
5. unitatea	Euskal pilota I	Euskal pilota II	Badmintona
6. unitatea	Mendiko bizikletaz jolasean	Orientazio-lasterketak	Kirol-eskalada

<b>Ekintza motorren DOMINIOAK</b>					
1	2	3	4	5	6
Bakarkako ekintzak	Bat baten aurkako ekintzak	Elkarlaneko ekintzak	Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak	Ziurgabetasun-inguruneko ekintzak	Adierazpen-eta arte-ekintzak